



2010eko UDA oihanaren bihotzean

2010eko udan disfrutatzeko 14 ekintza eta bisita gidatu deskontuarekin

Uztailaren lehenengo asteburu honetan hasiko da Plazaolako Partzuergotik udako oporretan ikasi eta disfrutatzeko gomendatzen ditugun bisita gidatuen programa.

Aurreko urtean egin bezala, 2010eko uda honetarako “2010eko UDA oihanaren bihotzean” izenburu duen programa prestatu dugu, hemendik antolatu eta aukeratutako bisita gidatu desberdinekin. Horien artean, mota guztietakoak eta gustu guztietarako aurkituko dituzu, izan ere, aurtengo eskaintza iazkoa baino zabalagoa da, programan sartu berri dugun Etxeberriko Lacturale - Esnearen Interpretazio Zentruko bisita da horren adibide.

Gainera, ‘Nafarroak dohainik hartzen zaitu’ programak gurera bisitan etortzen direnak saritzen ditu, horregatik, ekimen horri atxikitako alojamenduetan gutxienez bi gau ematen dituzten turistek, sari erakargarria jasoko dute. Zenbait zerbitzu turistikotan deskontuak dituzten bonuez ari gara: bi jatetxeetarako deskontua, bat alojamenduetarako, bi sarrera ekipamendu turistikoa eta kulturaletarako eta deskontu bat ekintza turistikorako; era horretan, Plazaolako Partzuergotik proposatzen ditugun bisita eta ekintza guztietan deskontua egingo da.

Gauzak horrela eta iazko arrakasta ikusita, 2010eko uda honetarako deskontua duten ondorengo bisita gidatuak eskaintzen ditugu:

Iribasko Iturburu•Leitzako herrigunea eta Leitzalarrea•Lekunberriko herrigunea•Basaburuako ehun urtetik gorako hariztiak

(lehenengo lau bisita hauek uztaila eta abuztuan egin daitezke soilik)

Ezkurdi eztiak eta erlezaintza museoa • Orgiko hariztia • Espeleoabentura Mendukilon • Bikain Gaztandegia • Peru-Harri harriaren parkea Leitzan • Saralegiren Arro Baserria • Mirua. Natur Jarduerak • Beigorri abentura parkea • San Migel Santutegia • Lacturale. Esne interpretazio zentroa

(Urte osoan zehar)



Basaburuko ehun urtetik gorako haritzak

Jauntsaratsen dauden ehun urtetik gorako haritzak, Natur monumentuak izendatu dituztenak, ikusteko aukera. Ondoren Arrarasko Kaano-etxea landa etxeari bisita.

Jauntsaratsko haritz monumentalen ibilbidea: ibilbidean haritz kankudun (*Quercus robur*) bi ale zahar aurkituko ditugu, bertako biztanleen eta ingurumenaren arteko harreman estuaren lekuko. Zuhaitz horiek aldizka eta ehunka urtetan lepatuak (gutziz kimatuak) izan ziren. Haien adarrak egurretarako eta ikatza egiteko aprobetxatzen zituzten; hostoak eta fruituak, berriz, ganaduaren bazkarako. Zuhaitz horietako bakoitza berez ekosistema oso bat da, hain baita konplexua hari loturiko fauna eta flora.

Kaño etxea: Etxe hau energia berriztagarriez hornituta dago. Etxea diseinatu eta birgaitzeko erabili diren irizpideak honakoak izan dira: bioklimatikoak, bio-eraikuntza, geobiologia eta Feng-Shui.

Abiapuntua: Jauntsaraseko polikiroldegia.

Igandetan, 11:00etan Iraupena: 2,30 ordu.

5 euro helduek, 2 euro hurrek eta 60 euro 20 pertsonatik gorako taldeek

Jauntsarats. Basaburua. T. 948507204

Leitzako Alde Zaharra eta Leitzalarreko izei zuriak

Leitzako plazatik irteera, alde zaharra, tradizioko etxeak, labaderoa, eliza; norberaren autoarekin Leitzalarrearaino irteera, bertan Natura Monumentuak izendatutako izei zuriak ikusteko (10 kilometrotara).

Leitzako herria: eraikin desberdin asko eta xarma bereziko tokiak ikus ditzakegu. Ezaugarri bezela hari gris-urdina duten etxe ikusgarriez gain, plaza, udala eta eliza dira esanguratsuenak.

Leitzalarrea: Leitzako herrigunetik 7 Km iparralderatz eginda, Leitzalarrea aurkituko dugu. Paraje aparta da eta naturaren ikuspegitik garrantzitsua. Pagadi eta hariztiak dira ugariak baina larre eta istordi zabalak ere aurki ditzakegu. Leitzalarreko urak, Leitzaran ibaiaren arrora eta urumea ibaira ixurtzen dira. Monumentu megalitikoaren presentzia nabarmena da, baita meatz eta burdinolen aztarnak ere. Gaur egun, abeltzaintza eta basogintza dira jarduera ekonomiko nagusiak.

Abiapuntua: Leitzako plaza.

Larunbateta 17,00etan Iraupena: 3 ordu

5 euro helduek, 2 euro hurrek eta 60 euro 20 pertsonatik gorako taldeentzako.

Leitza. T. 948507204



Lekunberriko Alde Zaharra

Plazaolako Geltokitik irteera, Natur Bidean zehar kilometro bateko ibilbidea eta Lekunberriko Alde Zaharrean itzulia. Arkitektura-ondarea, egur-labea, labaderoa, armariak, eliza...

Lekunberrin, ardatz baten inguruan ongi antolatutako baserriez osatutako hirigune zaharrarekin topo egiten dugu, merkataritza eta hainbat lekutako bizilagunak oso aintzinetik hasita zeharkatu ohi zuten bide bat; izan ere, Erdi Aroaz geroztik ezagutzen den ordaintoki bat bazuten. Horrela, haren hirigunea osorik gordetzen du, eta berarengandik sortu egiten dira, edertasun handiko kolosoak, baserri handiak.

Denborak aurrera egitearekin eta gurdi eta berebilak etortzearen ondorioz, herriak berezkoa duen merkataritza jarduerak hango bizilagunak ardatz berria aldarazi zituen, bide nagusia, non XIX. Mendeko Lekunberri berria hazteko prestatuko den, etxe ederrekin. Haiek guztiak gordetzen duten beraien izena, berezitasuna eta, haietariko gehienek, haien ohizko armaria.

Abiapuntua: Lekunberriko Plazaola geltokia

Ostiraletan 18,00etan Iraupena 2 ordu

5 euro helduek, 2 euro haurrek eta 60 euro 20 pertsonatik gorako taldeek

Lekunberri. T. 948507204

Iribasko iturburua eta etxe tipikoa

Autoa hartu eta Lekunberriko Plazaola geltokitik atera Iribasko aparkalekuraino. 5 kilometro dituen ibilbide zirkularra da: uraren ibilbidea eta Iribasen dagoen etxe tipiko (ukuiluak, etxebizitza eta ganbara) bati bisita.

Iribasko iturburua: Iribaseko Iturburuak kokatzen diren gunean, iturbegiak, leizeak, hustubideak, dolinak eta ubide zaharrak... dira ikusgai, hots, urak kareharrizko mendiaren barrualdean nahiz azalean sor ditzakeen modelatu ezberdinak.

Iribasetik begiraturaz, mailoak atzean dituzten mendi magaleko herriek, tokiaren ikuskizun izugarria eskaintzen dute, segidan berriz, txangozalea lurraren gorabeheretariko bilakatu eta bertara egokitu ohi da, hau da, kareharrizko malkarrek, pago motzek eta zabaltza formako belazeek inguraturiko lurrera. Lizarren, haritzen, hurritzen, sahatsen, elorri zurien... berdetasunak, ibaiertzeko zelaietako belarrezko alfonbrak nahiz hozkirri-sentimenduak, hurbilekoa, berehalakoa den eta gizakiaren eskura dagoen paisaia batean barneratzeko grina pizten du.

Iribasko etxe tipikoa: Larraun bailarako etxe tradizionala da: ukuilua, etxebizitza eta ganbara. Etxearen inguruan baratza eta larraina ditu. 1693. urtean eraikitako harrizko etxea da, sarrera zabal eta handi bat dauka, garai batean artoa, babarrunak... gordetzen zituzten.

Abiapuntua: Lekunberriko Plazaola geltokia

Larunbatetan 10,00etan Iraupena 2 ordu



5 euro helduek, 2 euro hurrek eta 60 euro 20 pertsonatik gorako taldeek
Iribas. Larraun. T. 948 507204

Ezkurdi eztiak eta erlezaintza museoa

Erlezaintzan aritzen den Ezkurdi museo-etxea Ultzama bailarako Eltso herrian dago. Bisitan joaten bagara, honako hau ezagutu dezakegu era didaktiko eta atsegin batez:

- Erleen mundu paregabea
- Ezti gordinaren bilketa eta ontziraketa
- Erlezaintzaren artea mendeetan zehar.

Bisitariak gainera, artisauak berak egindako produktuak eros ditzake: uzta propioaren artisau-ezti gordinak, ezti-mermeladak, ezti txokolatea, kandelak, xaboiak eta eztiaren bestelako eratorriak.

Egunero aurretik eskaera eginda.

6 euro helduek eta 3 euro hurrek

Eltso. Ultzama. T. 948306619

m.ezkurdi@gmail.com

Orgiko haritzia

Orgi, oihan zahar bat da, antzinako lokatzadun hariztiekin osatzen zuten lurraldearen lekukoa. Proposatzen dizkizugun bisita ezberdinen bidez, Orgik dituen paisaiak eta naturaz gozatu ahal izanen duzu.

Orgiko hariztian irteera. 8,5 km. inguruko ibilbidea, 2,5 – 3 orduko iraupena duena. Ibilbide erraza da, baina, ezgaitasun fisikoren bat duenarentzat ez da egokia. Era eta adin guztietako taldeek parte hartu dezakete.

Abiapuntua: Lizason dagoen Kuartelenea etxean edo Orgiko hariztian dagoen etxatoan

Aldez aurretik deituta. 10-25 pertsonen arteko talde antolatua 125 euro.

Lizaso. Ultzama. T. 948305300 / 620955454

garrapo@garrapo.com - www.bosque-orgi.com

Espeleoabentura Mendukilon

Mendukiloko koba: kobazuloak dituen 6 geletatik soilik 3 ikus daitezke ibilbide turistikoan. Horrela, ikus daitezkeen hiru gelak azpiegitura itzulgarriez hornitu dira: ahoko hesia, sarrerako gelako galtzada, zaldain flotakor metaliko galbanizatua eta argiztapen dinamikoa. Kobazulo honetan inoiz eguzki izpiak iritsi ez diren lekuak, lamien putzuak, estalaktitak, laminosineko lakua, leize karstikoetako putzuak edo osinak, herensugearen gotorlekua... aurkitu ditzakegu.



Espeleoabentura Mendukilon: Kobazuloko atondu gabeko galerietara bisitaldia, kirol tekniken bitartez. Espeloabenturak atondu gabeko 3 gelak behatzeko parada luzatzen dizu. Ibilbide turistikoko galerien azpitik, 70 metrotara, dimentsio handiko beste bat dago. Espeleoturismoak, azpiegitura eta argirik gabe, galeria honetara sartzeko aukera eskaintzen du.

Hilabeteko azken larunbatetan 9,30etatik 14,00etara.

Aldez aurretik deituta 45euro.

Astiz. Larraun. T. 948396095

mendukilo@mendukilo.com

Bikain Gaztandegia

Ardi latxaren artalde bat da, Nekazari-Transformazio Elkarte bezala osaturik, etxekoen artean sortutako enpresa txiki honen abiapuntua eta izatezko oinarria. Betidanik eszena ekoiztu arren, hirurogeita hamargarren hamarkadan etorri zen aldaketa: gazta eta mamia egiteko ohitura zena, merkatal jarduera batean bilakatu zen. Gaur egun egiten den gaztak, Idiazabalko jatorrizko izendapena dauka. Ekoizten diren produktuak honako hauek dira: gazta, naturala eta keatua, esne gordinaz eginak, mamia, gazta-zaharra eta gaztanbera. Bisitaldiaren bukaeran, dastatzea egiten da.

Egunero, aldez aurretik deituta.

4 euro Iraupena 1,30 ordu

Etxarri. Larraun. T. 948504117/696923434

josemari@satbikain.e.telefonica.net

Peru-Harri harriaren parkea

Perurena harrijasotzaileen familiaren harriaren parkea bisitatu. Parkea Leitzaan aurkitzen da, Uitzirako norabidean NA-1700 errepidetik 500 metrotara.

Peru- Harri: Iñaki Perurena harri-jasotzaileak diseinatutako, Peru-Harri parke eskultorikora eta baserrira bisita, herri kirolaren historia eta Iñaki eta haren seme Iñaxioren kirol markak ezagutzeko. Goikaldean, harrijasotzailearen irudia gailentzen da, beherago Pedro I.aren omenez egindako irudia ikus daiteke. Gainera, zurtarri bat, forma megalitiko desberdinak, beso erraldoi bat edo trikuharri antzeko bat ere ikusteko aukera dago. "Gorritenea" baserri familiarraren bisita: etxeak dauzkan 3 solairuetan herri kirolaren historia ezagutu daiteke, bai eta Iñaki eta bere seme Inaxioren kirol markak.

Larunbatetan eta igandeetan 10,30etatik 14,30ak arte

3 euro helduek eta 2 euro hurrek. 20 pertsonatik gorako taldeek 2 euro pertsona bakoitzeko.

Leitza. T. 659701045



Saralegiren Arro Baserria

Leitzako Kristina Saralegiren Arro Baserrian hazten diren abereak ikusteko bisita: behorrak, astoak, antzarak, ahateak, zerriak, ardiak... Ondoren, taloak egiteko tailerra eta hauen dastatzea.

Arro baserria: Mendi aldeko nekazari etxe tradizionala da: beheko solairuan ukuilua, abereen gordelekua, lehenengo plantan etxebizitza eta honen gainaldean ganbara, hemen abereentzat belar sekoa gordetzen da. Baserri hau, Leitza herritik kanpo eraiki zen lehen baserria da, XVII. Mendean.

Talo tailerra: garai batean oso ohikoa zen jakia egiten dute: taloa. Arto-irinarekin egiten da eta nahi bezela jan daiteke, gaztarekin, txistorrarekin edo txokolatearekin.

Orea egiteko oramahaia (maira), matarraskia eta zurezko koilara erabiltzen dugu; antzinako tresnak. Osagaiak arto-irina, ur beroa eta gatza dira. Orea egindakoan zati txikiak hartu, pilota txikiak egin eta taloan paratzen ditugu txapa-txapa. Bukatzeko, talo-burdinan edo txapa beroan jarri, eta erre egiten dituzte.

Taloak eginak daudenean, txistorra, hirugiarea, gazta edo txokolatearekin betetzen dira.

Abiapuntua: Leitzako enparantza

Aldez aurretik deituta. Iraupena 1,30 ordu.

10 euro helduek eta 5 euro hurrek

Leitza. T. 610 378543

kristinasaralegi2009@hotmail.com

Parque aventura Beigorri

Aritzaldeko hariztian kokatuta, udal kirol gunean erdian eta natura magiko batea barruan.

Zuhaitzen adarretatik ibiltzeko alternatiba abenturazalea dugu. Familiek, gazteek eta helduek, ia-ia publiko guztiek, segurtasun osoz gozaten ahal dute instalazio honetan. Erabiltzaileak soilik gozatzeko gogoak jarri behar ditu eta irudimena hegan utzi.

Ibilbide motza: 4,5 metroko altuera, 130metroko luzeera (45 minutu) 10 euros (7 euro/pertsona 25 pertsonatik gorako taldeentzat)

Ibilbide luzea: 9 metroko altuera, 250 metroko luzeera (ordu bat eta 30 minutu) 20 euro (15 euro/pertsona 25 pertsonatik gorako taldeek).

06/15etik 09/15era 10,30etatik 19,00etara (eguerditan itxita)

Apirila, maiatza, ekaineko lehenengo hamabostaldia eta iraileko 15etik urriko 30era, bakarrik asteburutan 10,30etatik 18,00etara

Azaroa, abendua, urtarrila, otsaila eta martxoa itxita.

Lekunberri. T. 609 044 071



Mirua. Natura Jarduerak

Mirua ibilbide anitz eskaintzen dizkigu, erritmo mantsoan eta geldiune tematikoekin natura 5 zentzumenen bidez behatu, entzun eta disfrutatzeko. Pausuz pausu.

Eskaintzen diren bisita gidatuen artean honako hauek aurkituko ditugu: Iratiko oihana, Europako pagadi-izeidi basorik zabalenetarikoa; Orreaga, hegazti migratzaileak behatzeko leku paregabea; edo Aralarko mendizerra pagadi zabal, paisaia karstiko ikusgarri, iturburu edo monumentu megalitikoak ikuskatzeko.

Gainera, Nafarroatik pertsonalizatutako ibilbideak planifikatzeko aukera dago, edo Lumbier eta Arbayuneko haitzarteetatik Eco-rutak egiteko.

Horretaz gain, Nafarroako habitatak ezagutu eta hegaztiak behatzeko ornitologi-gida zerbitzu desberdinak eskaintzen dituzte: ornitologi-bisita eta behaketa puntuak, ornitologi ibilbide gidatua edo ibilbide pribatuak.

Aldez aurretik deituta, prezioak kontsultatu.

Lakuntza t. 608 56 03 69

www.mirua.com / info@mirua.com

San Migeleko Santutegia

Bisita honetan Aralarko mendilerroan eraikita dagoen mila urteko historia baino gehiagoko santutegia ikusteko aukera izango duzu. Europako esmalteriaren obra gorena den erretaula preromanikoa aurkituko duzu bertan. Gainera, jattetxean bazkaldu edo tabernan kafe bat hartzen duzun bitartean bista ezin hobeak izango dituzu.

Egunero 10,00etatik 20,00etara (eguerdian itxita)

2 euro helduek euro 1 hurrek

Uharte Arakil. 948 373013- 626 030234

www.aralarkosanmigel.info

Lacturale – Centro de interpretación de la leche

Txekorra jaiotzen denetik produzitzen hasten duen arteko prozesua eta produkzio etapa hori nolakoa den azalduko digute bisita gidatu honetan. Gainera, Lacturalek erabiltzen duen Produkzio Integratua sistemaren onurak eta gainerako produkzio sistemekin dauden desberdintasunak ezagutuko ditugu.

Egunero aldez aurretik deituta, Iraila arte doan.

Etxeberri (Arakil) T. 948 600449.

info@lacturale.com

Arau-baldintzak

1. Bisitaldi guztiak aurretiko zitaren bitartez egingo dira, jarduera bakoitzarekin batera aipatzen diren telefonoen bidez.
2. Jarduera guztiek, dagokion egunerako kontratatutako erantzukizun zibileko aseguruak dute.
3. “doan” sinboloa duten jarduera deskontua izango dute ostatuetan eskaintzen diren bonoak aurkezten badira.
4. Ibilaldia egiteko gutxieneko taldearen kopurua galdetu.